

LABURREAN

PORTUGALETE

Ikasleei zuzendutako gidea argitaratu dau Turismo sailak

Portugaleteko Udalak ikasleentzako gida turistikoa argitaratu barri dau. Jose Antonio Uranga zinegotziaren berbetan, «udalerrriaren erakargarritasunak zabalduko ditu gideak». Euskeraz eta gaztelaniaz idatziriko argitalpenak Salazar Torrea dauka pertsonaia nagusitzat. *Portugalete, Salazarinen esku-tik* gidan, udalerrria ezagutze-ko ibilbide historikoa proposetan jake ikasleei.

SESTAO

Imebisa enpreseak Metroaren sarrerako proiektua aldatuko dau

Imebisa ingeniari-tza enpre-seak Kasko plazako Metroaren sarrerako proiektua aldatuko dau, Kale Nagusiak 9 metroko gitxieneko zabale-rea izan daian. Segundo Calleja alkatearen esanetan, «hasierako egitasmoak ito egiten eban Kale Nagusia, fosteritoak kalea estutu eta autoen zirkulazioa eragoz-ten eban». Egitasmo barriak Kasko plazako oinezkoenda-ko eremua mantenduko dau.

BASAURI

Ibarguen: «Udal sailen egiturea legezkoa da»

Udal sailletako berregitura-keteak eta zenbait ordezkari-zen idazpenak, «legezkoa izateaz ganera, herritarrei zerbitzu hobea emotea dauka helburu», adierazo dau Rafael Ibarguen EAJko alka-teak. EH eta PSE-EE oposizi-noko alderdiek alkateak in-posatutako berrantolaketea legez kanpokotzat jo eban.

BARAKALDO

Megaparkaren aldeko gutunak bialdu ditue

Carlos Pera Barakaldoko al-kateak 30.000 gutun bialdu ditu, udalerriko etxebizitza guztietara, Zuloko-Ibarreta-ko hezegunean eregi gura dauan Megaparkaren aurka agertu diran oposizino-ko alderdiak eta ekologistak kriki-katuz. «Zuloko-Ibarretako urigintza garapena geldiaraz-o dabe», salatzen dau alka-teak barakaldarrei zuzendu-riko gutun irekian.

Olentzerok badau nork idatzi

GUTUN LEHIAKETEA. 234 gutun aurkeztu dira Santurtziko Euskara sailak eta Udal Euskaltegiak antolatutako Olentzerorentzako Gutunen V. Lehiaketara



XOUSE SIMAL

SARI BANAKETEA. Axular Institutuan banandu zituen V. Lehiaketako sariak, atzo. Bertoko ikasleek ipuin kontaketa saioa eskaini eban.

Hasier Rekondo | **SANTURTZI**

Olentzerok badauka nork idatzirik, Gabriel Garcia Marquez Nobel saridunaren elebarriko koronelari jazo ez moduan: Ezkerraldeko ikasleek euskeraz idatziriko gutunez ganezka laga dabe Olentzeroren zorroa.

234 gutun aurkeztu izan dira Udal Euskara sailak eta Euskaltegiak Gabonetan eratutako Olentzerorentzako Gutunen V. Lehiaketara. Carlos Glaria eus-kera saileko arduradunaren berbetan, «herriko euskaldun barri-iei, eta euskaldunei orokorrean, euren sendimenduak adie-razoteko bidea emon gura izan dautsegu, literaturearen bidea».

Santurtzin euskereak jasaten dauen egoera kezkarriari au-rre egiteko literatur lehiaketea tresna egokia dala uste dabe antolatzaileek. Udalerrrian geroz eta gitxiago entzuten da euske-rea eta udal euskaltegiko ikasle-ek be erdarara jotzen dabe, kla-setik urteterakoan.

Gutunen edukiei jagokenez, bakea, zoriontsauna, alkartasu-na edo txiroentzako laguntza eskea izan dira ikasleek aukera-tutako mezuak, Olentzerok go-goan hartuko ditualakoan.

AMAIA IRAZABAL IKASLEA

«Harry Potterren izenean, familiarendako maitasuna eskatu deutsot Olentzerori»

H.R. |

Emilia Zuza ikastetxeko ikas-lea da Amaia Irazabal Blanco 11 urteko neskatila. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko gutu-nen artean sailkapeneko le-hen saria jaso dau santurtzia-rrak.

■ Zer eskatu deutozu Olentzerori?

Niretzako ezer ez. Harry Po-tterren izenean idatzi deutsot, familiarentzat adiskidetasuna eta maitasuna eskatu deuto-daz.

■ Zergaitik Harry Potter?

Harry Potterrek ama eta aita hilda ditu, osaba eta izebek ez dabe maite. Asko gustetan jat, pelikulea ikusi eta ganera liburuak be irakurri dot. Irudi-men asko dauka liburuak eta Harry Potter magiaz betetako pertsonaia da.

■ Itxaroten zenduan lehen saria jasotea zure adineko-



XOUSE SIMAL

entzako sailkapenean?

Ez, egia esan. Poz handia emon deust lehen sariaren irabazlea nintzala esan deus-tenean.

■ Idazten jarraituko dozu etorkizunean?

Ez dakit baina asko gustauko

litzaidake. Beste gauzetan baino erreztasun gehiago daukadala uste dot. Klasean idazlanak egiteko agintzen deustenean poz handia har-tzen dot. Ikastetxean eta etxe-an idazten dot eta oso gusto-ra. Ipuinak be idatzi izan ditut.

■ Egunerokoan zelan jar-duten dozu, euskeraz edo gaztelaniaz?

Gurasoein euskeraz egiten dot. Lagunekin, oster, ba-tzuetan euskeraz eta beste ba-tzuetan gaztelaniaz. Santur-tzin gatxagoa da euskeraz egi-tea baina ez dakit zergaitik.

■ Datorren urtean lehiake-tara aurkezteko asmoa daukazu?

Oraindino ez dakit baina idaz-tea asko gustetan jatan ez baiezkotan nago. Datorren urterako beste pertsonaiaren bat aukeratu beharko dot, nahitaez. Oraindino ez dot ondo pentsau.